

## ARRASATE / Irakurzaletasuna bultzatuz

Bularretik Mintzora izenburuko egitasmoa heldu da Arrasatera. Galtzagorri elkartearen eta Udalaren arteko akordioaren fruitua da haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzendutako egitasmoa. Helburu nagusia sei urtera bitarteko haurren irakurketa ohiturak susta-tzea da, haien ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian, hain zuzen ere.

Ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten atzo Kulturaten. 'Txikitatik irakurketa partekatzeak hobetu egiten du haurren garapen psikiko, fisiko eta intelektuala', adierazi zuen Galtzagorriko kide den Itziar Zubizarretak. Formazio eta informazio aukerak eskaintzen dituzte euskal haur literaturari bereziki begiratzen dion proiektu honekin. 2007an bultzatu zuen Galtzagorriko Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta Debagoiengan, Arrasate egitasmoan parte hartzen duen bigarren herria da; izan ere, dagoeneko martxan dago Oñatin.

Esperientzia udal liburutegitik abiatuko da eta ikastetxeen parte-hartzearen bitartez, haurren eta haien gurasoengana ailegatzea da asmoa. Irailean hasitako ikastaro bat gauzatzen ari direla jakinarazi zuten, 50 bat irakaslerekin.

Herriko ikastetxe guztiek bat egin dute programa honekin, gutxi gorabehera 725 neska-mutikorekin. Beraz, datozen egunetan euren etxeetara (hiru urteko umeentzat) informazio eta formazio baliabideak iritsiko dira: irakurketa irizpideak, bibliografiak, euskal tradiziozko jolasak, kantuak eta ipuinak jaso-tzen dituen Bularretik Mintzora liburu-diskoa, besteak beste. Gainera, umeentzako irakurketa klubak ere antolatuko dituzte udal liburutegian. Bertan, dinamizatzaile baten eskutik euskal haur literaturako liburuak partekatzeaz gain, ahozko kontakizunekin gozatzeko aukera ere egongo da.

Gurasoen kasuan, hiru hitzordu prestatu dituzte. Bihar, Juan Kruz Igerabide idazleak Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura delako hitzaldia eskainiko du Kulturaten, 18.00etan. Azaroaren 3an, ordu berean, Juan Karlos Alonso psikologoaren Haur literaturaren garrantzia haurren garapenean berbaldiaren txanda izango da. Urtarrila eta otsaila artean, aldiz , Pello Añorga ipuin kontalariak hainbat saio gidatuko ditu.